

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ETA MENDEKO SOZietATEEN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2021

Joan den azaroaren 6an Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Energiaren Euskal Erakundearen eta mendeko sozietateen gaineko fiskalizazio txostena, 2021eko ekitaldiari dagokiona.

Epaitegiak **aldeko iritzia** eman du EEE taldearen **kontu bateratuen** gainean, bai eta EEEren eta mendeko sozietateen **urteko kontu banakakoena** ere, eta ez du inongo salbuespenik adierazi.

Bai EEEk bai mendeko sozietateek **zuzentasunez bete dute** 2021eko ekitaldian ekonomiaren eta finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.